

KOSTUEN EGITURA

Atal honetan gure proiektuaren kostu egitura azalduko dizuegu. Hau, hiru zatitan banatu dugu, hasierako inbertsioa, kostu finkoak eta kostu aldakorak.

Esan dugun bezala hasierako inbertsio bat egin beharko dugu, hau 8.500€-koa izango da. Diru honen zati bat gure web-orria egingo duen langile batentzat da eta gainontzekoa beharko ditugun komunikazio gailuetarako.

Hemen behean dagoen taulan ikus dezakezu guztia ondo zehaztuta.

Web-Orria	2.000€
Tresnak	3.000€
Komunikazio gailuak	3.500€
GUZTIRA	8.500€

Tresna atalaren barruan, bizikletarako behar ditugun makinak sartzen dira, horretaz gain, materiala hau da, mailua, bihurkin, torlojuak ...

Web-orria egiteko programatzaile baten lana erosi beharko genuke. Gaur egun dauden sistemekin Web-orria egitea oso merkea da, baina, gure enpresak behar duen web orriak espezifikazio oso bereziak beharko ditu.

Gure enpresaren atal garrantzitsuena komunikazioa da, horregatik hainbat komunikazio gailu izango ditugu, haien artean: Mugikorak, tableta, ordenagailua eta portatila.

Gure proiektuak kostu finko batzuk ere sortuko ditu, hau da, hilabete guztietan kostu berdina jasanaraziko dizkigutenak. Hauek, lokala, publizitatea eta langileen soldatak izango dira. Guztia ondo aztertu ondoren hilean 18.030€ ko gastu izango genuke eta urtean, aldiz, 216.360€-koa.

€	Hilabetean	Urtean
Uggasa	30€	360€
Soldatak	7.500€ (3 langile)	90.000€
ETT	7.500€ (5 langile)	90.000€
Publizitatea	3.000€	36.000€
GUZTIRA	18.030€	216.360€

Kostu finkoez gain, kostu aldakorak ere edukiko ditugu, eta hauek txirrinduak, txirrinduen sistema elektrikoak eta packaging-ak dira. Hauen kostua hilero aldatzen joango da eta hilero gutxi gorabehera 35.400€-ko kostua izango lirateke azpian ikus daiteken bezala.

€	Txirrindu 1	Hilabetero gutxi gorabehera 6 txirrindu
Txirrinduak	3.800€	22.800€
Sistema elektrikoa	2.000€	12.000€
Packaging (bilgarria)	40€	240€
Bidalketak.	60€	360€
GUZTIRA	5.900€	35.400€

Guzti hau kontuan izanda lehenengo hilabetean **61.930€** ko kostua edukiko genuen. Kostu honen jatorria hasieran egin behar dugun inbertsioetik (8.500€), hilabete bateko kostu finkoetatik (18.030€) eta hilabetero 6 txirrinduetan egin behar dugun inbertsioetik (35.400€) dator. Gainontzeko hilabete guztietan **53.430€** ko kostua edukiko dugu, hasierako inbertsioa ez dagoelako zergatik egin eta gainontzeko gastuak berdinak direlako.

Honetaz gain, lehenengo urtean **649.660€** ko kostua izango dugu gutxi gorabehera. Hau hasieran egin behar dugun inbertsioetik (8.500€), urte batean edukiko ditugun kostu finkoetatik (216.360€) eta urte batean gutxi gorabehera erosiko ditugun 72 txirrinduetatik (424.800€) datoz. Hurrengo urteetan berriz, **641.160€** ko gastuak edukiko ditugu hasierako inbertsioa lehenengo urtean bakarrik kontaktzen duelako.